

# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

### 4533

*EBAZPENA, 2013ko urriaren 17koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Merkataritza Sustatzeko Bulegoentzako 2013ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia.*

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko urriaren 20ko Agindua-ren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren laguntzen esparrua ezartzen da, Merkataritza Sustatzeko Bulegoei laguntzeko (2010eko urriaren 25eko EHAA, 205. zk.).

Aipatutako aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, hor iragarritako diru-laguntzak emateko 2013ko ekitaldiko deialdia egiten da, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematen.

Horregatik, aipatu aginduak ematen didan eskumenaz baliatuz, hau:

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen bidez, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko urriaren 20ko Aginduan 2013ko ekitaldirako xedatutako laguntzetarako deialdia egiten da; laguntza horiek Merkataritza Sustatzeko Bulegoei emango zaizkie.

##### 2. artikulua.– Bulego kopurua.

Gehienez ere merkataritza sustatzeko 32 bulegok jasoko dute laguntza, honela banatuta:

– Agindu arautzailearen I Eranskineko agertzen diren esparru bakoitzerako bulego bat izango da, honako salbuespen hauekin: 4. esparruak bi bulego, 26. esparruak hiru bulego eta 27. esparruak beste hiru bulego izango dituzte.

##### 3. artikulua.– Aurrekontu-kontsignazioaren zenbatekoa.

Helburu hori betetzeko, 1.232.000 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan berariaz arlo horretarako izendatutako aurrekontuaren kredituaren arabera.

Diru-zenbateko hori aldatu egin daiteke, eskaeren guztirako zenbatekoa kontuan hartuta eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak beste laguntza-programa batzuk gauzatu ostean agortu barik geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, betiere azken horien ebazpenak eman aurretik.

##### 4. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Eskatzaileek eskabideak eta gainerako dokumentazioa Merkataritza zuzendaritzara helaraziko dute, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzaren bidez, izan zuzenean edo izan Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeak ezarritako bideren bat erabilita. Eskabide egiteko eredia Saileko Lurralde-Ordezkaritzetan jaso daiteke baita interneteko helbide honetan ere: [www.euskadi.net/comercio](http://www.euskadi.net/comercio).

Laguntza jaso nahi duen erakundea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak izenpetu behar du eskabidea eta laguntza eskatzen duenaren jarduera eremua azalduko du.

2.– Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 17a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,  
ITZIAR EPALZA URQUIAGA.